




EUSKARALDIA

gehigarri berezia



noa^{ua} euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noa^{ua}.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!



bete ezazu eta noa^{ua}!ra eraman...
edo
noa^{ua}.eus bidez bazkide egin zaitez



noa^{ua}

Bazkidelza: urtean, 40 euro.

Informazio gehiago:

NOAUA!ko bulegoan, 943 360 321 telefono zenbakian edo e-postaz elkartea@noa^{ua}.eus helbidetan.

Eta urtean zehar, baliatu zaitez bazkide izatearen abantailaz! NOAUA!ko ekitaldietan deskontuak, sarrera zozketak...

IZENA:

ABIZENAK:

JAIOZTE DATA:

JAIOZTERRIA:

N.A.N ZENBAKIA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KODEA:

ETXEKO TELEFONOA:

MUGIKORRA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

K/K ZENBAKIA:

Usurbilgo Noa^{ua}! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidelza kuota^{ren} helbideraketa (40€) baimentzen dut.

Usurbilen, ko ren an

Sinadura:

2020KO EUSKARALDIA

MARRAZTEN HASIAK

Berrikuntzak dakartza bigarren edizioak. Iraupen aldetik 11 egunetik bi astera luzatuko da. Belarriprest eta Ahobiziei, entitateak batuko zaizkie. Iazko norbanakoen konpromisoei, konpromiso kolektiboena gaineratuko zaie honenbestez. Denetariko entitateen parte hartzea sustatuko da hurrengo urtebete honetan “Ariguneen” (euskaraz aritze-ko gune kolektiboan) bidez. Entitateez ari garenean, eremu ezberdinetako lantegi, erakunde, eragile edo elkartei buruz ari gara, herritar taldeei buruz.

“Ahobizi eta Belarriprestei entitateak batuko zaizkie datorren urtean”



2020ko Euskaraldirako atzera kontaketa martxan da. Lanketa hau guztia bideratzeko 12 hilabete daude aurretik eta bolondresak beharko dira.

Bi baldintza bete beharko dituzte Ariguneetako partaideek: denek euskaraz ulertzeko gai izan eta 15 egunez euskaraz aritzera konprometitu beharko dira.

Bolondresak

Bistan denez, 2020ko Euskaraldirako atzera kontaketa martxan da. Lanketa hau guztia bideratzeko 12 hilabete daude aurretik eta bolondresak beharko dira. “Usurbilgo 2020ko Euskaraldia gi-

rotzen laguntzeko prest zaude? Gustura hartuko zaitugu gure artean!”, luzatu dute Usurbilgo Euskaraldiko taldeak.

Antolaketa lanen eredia berritu dute aurtengoan. Aurreko edizioan bezala, bi hilabetean behin bilduko den herritarren batzorde ireki bat osatu da. Eta haren baitan lau lan talde martxan dira, entitateekin lan egin, ekintzak antolatu edota komunikazio zein koordinazio lanez arduratzeko. “Lan talde bakoitzak kideen

arteak adostuko ditu lan-dinamika eta bileren maiztasuna”, iragarri dute Usurbilgo Euskaraldira.

Antolaketa lanetan izan diren alaketak argitu dituzte. “Batzorde hori baliatuko dute lantaldeek elkarren berri izateko, eta bilera horietan hartuko dira guztioi eragingo dizkiguten erabakiak”. Dena den, Euskaraldiaren sustatzaileek adierazi dutenez “batzordea irekia izango da, eta edonork parte har dezake”.

2020KO EUSKARALDIA

■ Noiz: Azaroak 20-abenduak 4.

■ Iraupena: 15 egun.

■ Parte hartzeko moduak:

-Norbanakoek: Ahobizi (lehen hitza euskaraz) edo Belarriprest (Ahobizien hizketari jarraipena ematea) gisa.

-Entitateek: Ariguneen bidez.

■ Izen ematea:

-Usurbilek herri bezala urrian eman zuen izena.

-Herritarrentzat 2020ko irailean.

■ Antolaketa egitura berria lanean da:

-Herritarren batzorde ireki bat.

-Lau lan talde ireki:

1-Entitateekin lan egingo duen taldea: entitateei Euskaraldia aurkeztu, parte hartzea gonbidatu eta ekimena aurrera eramateko laguntza eskaini edota herriko entitateen mapa osatuko dute.

2-Ekintzen lan taldea: Euskaraldia herriratzeko ekimenak antolatuko ditu; tartean, datorren Euskararen Eguneak.

3-Komunikazio lan taldea: webgunea eta sare sozialak kudeatu, albisteak sortu, antolatutako ekintzen berri

eman...

4-Koordinazio lan taldea: kontu ekonomikoak eta barne harremanak kudeatuko ditu (Gipuzkoako foroetan parte hartu...).

-Antolaketa lanetan parte hartzea: lantalderen batean parte hartu edo une puntaletan laguntzeko aukera.

■ Informazio gehiago eta antolaketan parte hartzeko izen ematea:

usurbil.euskaraldia.eus
usurbil@euskaraldia.eus
688 807 336

EUSKARALDIAK HIZKUNTZA-OHITURAK ALDARAZTEN ERAGIN ZUEN

Erronka bete da. Euskaraldia geure hizkuntza ohiturak astintze-
ra zetorren iaz. Soziolinguistika
Klusterrek duela urtebeteke ekimenaren
eragina aztertu du, eta azaroaren 6an
Potxoenean aurkeztu zituen ikerlane-
ko emaitzek helburua bete dela frogatu
dute. “Hainbat hizkuntza-ohitura alda-
tzea eragin du Euskaraldiak”, eta horre-
kin batera, “Euskaraldiarekin euskararen
gaia plazara atera zen Usurbilen, eta he-
rritarrek erabileraz hausnartu zuten”,
Euskaraldia sustatzen ari den he-
rritarren batzordetik azpimarra-
tu dutenez. Ez hori bakarrik,
“hein handi batean lortu zen
herritarrek jabetzea norberak
aletxo jar dezakeela euska-
ren normalizaziorako pausoak
emateko”.

**“Usurbildar
askok hartu
zuen parte
Euskaraldian,
gogotsu eta
ilusioz”**



Uxo Anduaga Soziolinguistika Klusterreko kideak Euskaraldiaren inguruko ikerketaren berri eman zuen azaroaren 6an. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Datuak eskutan, dagoeneko bigarren Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den bilguneak iazko edizioaren hausnarketa plazaratu du. Balantze gozoa. “Usurbildar askok parte hartu zuen ekimenean,

eta ilusioa eta gogoia hedatu ziren”. Hizkuntza-ohiturak aldatzen hasteko baliagarria izan arren, aldiz “ohitura berri horiek finkatzea” ez da lortu Euskaraldiarekin. Argi denez, “hizkuntza-ohitu-

rak aldatu eta gizarte-aldaketa sustatzea epe luzerako lana” dela jakitun baitira. Honenbestez, Euskaraldiaren estreinako edizioak “bidea urratzeko balio izan du, eta ahaleginetan jarraitu behar dugu”.

BELARRIPRESTAK, ZAINDU BEHARREKO KOLEKTIBOA

11 eguneko ariketan Belarripresten egin-kizuna goraipatu nahi dute Euskaraldiko taldeko kideek. Ahobiziek baino aurrerapauso gehiago eman dituztela nabarmentzen dute; hala egitea eskatu ez bazitzaie ere, euskara erabiltzera bultzatu ditu ekimenak. “Ezin zaie balio sozial baxua eman, izan ere, besteak beste, figura horren bitartez biztanleriaren sektore berriak euskararen dinamikara hurbiltzeko aukera zabaltzen du Euskaraldiak”. Argi diote, “Usurbilen ere euskaraz mintzatzeko gaitasun

txikiagoa dutenek egin dute aldaketa handiena”. Eta haiek dira –Belarriprestak– Euskaraldiko lagunen esanetan, bereziki zaindu beharreko kolektiboa. Euren ahalegina balioan jarri behar dela irizten diote, “askotan haiek euskara ikastea nahi baitugu, baina gero praktikatzeko espazio erosorik ez baitiegu eskaintzen”.

Eremu berrietara zabaldu

Aurrera begirako hobetzekoen artean, rolen inguruan emandako argibideak

aipatu dizkigute; “ekimenaren konpromisoa eta rolen egitekoa” ez direla behar bezala ulertu edo azaldu uste dute. Gainerakoan, euskararen erabilera areagotzen lan egiten segi nahi dute Euskaraldiaren sustatzaileek 2020ko bigarren edizioan. “Ahobizi eta Belarriprest jokaeretan sakondu, ekimena eremu berrietara zabaldu, eta era guztietako erakundeen babesa lortu nahi dugu. Urrats horiekin, pixkanaka, euskaraz bizitzea erabakitzen duen pertsona oro babestera helduko gara”.

OHITURAK ALDATZEN HASI BAI, FINKATU EZ HORRENBESTE

Gogoan izango duzue; Euskaraldian izena eman zuten 1.254 Ahobizi eta Belarriprest usurbildarrei, geure hizkuntza-ohituretan eragitera zetorren ekimena hasi aurretik, amaitu berritan eta hiru hilabetera galdetegi bana bidali zitzairen. Hiru galdetegiak bete zituzten herriarren erantzunetan oinarrituta, duela urtebeteko ekimenak Usurbilen izandako eraginaren ikerlana landu du Soziolinguistika Klusterrak. Azaroaren 6an aurkeztu zituzten emaitza nagusiak Potxoenean. Txostena, usurbil.euskaraldia.eus atarian eskura dezakezue.

Datuak eskutan, baikor ageri da Soziolinguistika Klusterrako azterlana. “Euskaraldiak epe motzean (11 egunen ondoren), euskara erabiltzeko aukerak optimizatzea ekarri du. Epe luzera begira (3 hilabete pasata) ohitura berri horietako batzuk egonkortu dira”, nabarmentzen du.

Euskaraldiak Usurbilen arrastoa utzi duela baieztatzen du. “Euskaraldiak nor-

*Epe
motzean,
euskara
erabiltzeko
aukerak
optimizatu
egin dira*

beraren hizkuntza erabilerak euskararen alde aldarazi ditu”, txalotzen du Soziolinguistika Klusterrak. Baina adi, epe luzera “ez da lortu ohitura berri horiek finkatzea”. Kasu honetan ordea, bada des-

berdintasunik Ahobizi eta Belarripresten artean. Ahobizien artean bai, ohitura berri horien finkatze falta islatzen den artean, “Belarriprestetan aldiz positiboagoa izan da emaitza”.



“Euskaraldiak epe motzean (11 egunen ondoren), euskara erabiltzeko aukerak optimizatzea ekarri du. Epe luzera begira (3 hilabete pasata), ohitura berri horietako batzuk egonkortu egin dira”. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

GAITASUNA HANDITU AHALA, ERABILERAREN BILAKAERA LEUNAGOA

Hizkuntza-ohitura aldaketa handienak epe motzera lagun artean eman direla, eta gerora Belarriprestetan egonkortze mailak sendoagoak izan direla ohartarazten dute. “Euskaraz erraztasunez ulertzen dutenekin” eragin du gehien Euskaraldiak. Aldiz, euskaraz aritzeko gaitasuna handitzen joan ahala, erabileraren bilakaera orduan eta leunagoa dela dio aipatu ikerlanak.

Indarguneak eta ahulguneak

Emaitza orokorrok eskutan, Sozio-

linguistika Klusterrak, aurrera begira aintzakotzat hartzeko moduko hainbat indargune eta ahulgune marraztu dizkio Usurbili. “Euskaraldiak, ekimen gisa, jendearen parte hartzea bultzatzeko ezaugarri egokiak bildu ditu: elkarlana, aniztasuna, errespetua eta praktikotasuna”.

Hizkuntza-ohitura berri guztiak ez dira finkatu

Herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzeko baliagarria dela erakutsi du eki-

menak baina era berean, “ez da horiek guztiak finkatzeko baliogarria izan”.

“Rolen egitekoa ez da behar beste zabaldu, ezta ulertu ere”

Bigarren ediziora begira hobetu beharrekoen artean aipatzen du, “ekimenaren konpromisoa eta rolen egitekoa ez da behar beste zabaldu, ez eta behar bezain argi ulertu ere”. Eta bereziki “Belarriprestei balio sozial baxua eman zaie”, Soziolinguistika Klusterretik aditzera eman dutenez.

FAMILIAN ETA LAGUNARTEAN ERAGIN HANDIAGOA

209 lagunek bete zituzten Euskaraldiaren eragina neurtzeko hiru galdetegiak; 189 Ahobizi eta 20 Belarriprestak. Emakumeak eta 35-49 urte artekoak izan ziren galdetegiak gehien erantzun zituztenak. Soziolinguistika Klusterrak galdetegiok betetzeko Usurbilgo herritarrek erakutsitako inplikazioa eskertu nahi du. Euskaraldiarekiko motibazio handia edo oso handia erakutsi zuten inkestatuek.

Euskaraldiak arrastoa utzi du partaideen hizkuntza jokabideetan. %92tik %95era igo zen euskaraz ulertzen dutenekiko hartuemanak euskaraz egitearen apustua egin zutenen ehunekoa. Inguruan nagusiki euskara entzun zutenak %80 izan ziren.

Norbere hizkuntza erabilerari dagokionean: dena edo erdia baino gehiago euskaraz egiten dutenen ehunekoa puntu bakarra igo da. Eta inguru hurbilarekin nola jokatu dugu? Soziolinguistika Klusterraren arabera, “esparru informalean (familiar eta lagunartean) esparru formalean (lantokian eta ikaslekuan) baino eragin positiboagoa izan du Euskaraldiak, hiru hilabeteren ostean bertan lortu baita hizkuntza ohitura berriak gehien finkatzea”. Ikaslekuetan izan du eragin gutxien ekimenak.

Ikaslekuen kasuan, 7 puntuko atzerakada

Euskaraldiko ikerketaren arabera, “eremu sozial guztien artean familiar izan du Euskaraldiak eraginik nabarmenena”. 11 egun igaro berrikan bereziki. Hiru hilabetera, familiar hitz egindako guztia edo erdia baino gehiago euskaraz egin zutenen kopurua 2 puntu igo ziren, puntu bat lagun artean, 0 puntu lagun artean. Ikaslekuen kasuan 7 puntuko atzerakada (%43tik %36ra) sumatu da.



“Eraginik nabarmenena familiar barruan izan du Euskaraldiak”

Euskaraldiak arrastoa utzi du partaideen hizkuntza jokabideetan. %92tik %95era igo zen euskaraz ulertzen dutenekiko hartuemanak euskaraz egitearen apustua egin zutenen ehunekoa. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Datuok gure ingurune sozialari dagozkionak ditugu. Eta ezezagunekin? Lehen hitza euskaraz beti edo ia beti ahotan hartzen dutenen kopurua bikoiztu egin

zen Euskaraldia amaitu berrikan (aurretik %35a, 11 egunen ostean %75). Martxoan egin zen hirugarren neurketan, %43ra jaitsi zen kopuru hau.

SOLASKIDEAK ERE AZTERTU DIRA

Norbere mintzatzeko gaitasuna kontuan hartuta; ongi hitz egiten dutenen kopurua oso altua izanik, 95etik 96 puntura igo zen hiru hilabeteke tartean. Elkarrizketa errazetan euskaraz moldatzeko gai direnek euskararen alde egin zutenak 50etik 83 punturaino igo ziren 11 egunetan, nahiz 50 puntura itzuli martxoan.

Solaskidearen ulermen eta mintzamen gaitasuna aintzakotzat hartuta, 7 puntu (%49tik %56ra) egin du gora

euskaraz ondo ulertzen duen solaskidearekin euskaraz beti edo askotan egin zutenen kopurua. Euskaraz ulertzeko zailtasunak zituztenekin %40tik %43ra.

Euskaraz erraz mintzatzen direnekin euskara baliatzen da nagusiki Usurbilen; %98tik gora beti edo askotan. Mintzatzeko zailtasunak dituztenekin aldiz, %80tik %61era murriztu zen euskara beti edo askotan zerabiltzenen kopurua, batzuetan euskaraz aritzen zirenen ehunekoa 17 puntu egin zuen gorantz.

AHOBIZIEK DATU OROKORRAK BERRETSI DITUZTE

Ahobizien %95-96a euskaraz mintzatu ziren hizkuntza berean ulertzen dutenei. Inguruan zer hizkuntza entzun zuten ere adierazi dute; %82tik %86ra igo da ia dena edo erdia baino gehiago euskara entzun zutenen ehunekoak. Puntu batean hazi da ia dena euskaraz egiten zutenen kopurua Ahobizietan. Eremu sozialari dagokionez: bi puntu familian (%93tik %95era) eta lagunartean (%89tik %91ra). Lantokian epe motzean lau puntu (%64tik %68ra) igo arren, gerora ordea %63ra jaitsi zen, puntu bateko atzerakada izateraino. “Euskaraldiak ez du lantokian hizkuntza ohitura berririk finkatzerik lortu”, Soziolinguistika Klusterraren txosteneko emaitzen arabera. Ikaslekuan Euskaraldian zehar euskaraz dena edo erdia baino gehiago egiten zutenak %45 izatetik, martxoan %38 izatera murriztu ziren.

Ezezagunekin aldiz, lehen hitza beti edo ia beti euskara ahotan hartu duen Ahobizi kopurua gehitu zuen Euskaraldiak epe motzean; %36tik %77ra igo zen kopurua.

Euskara erraz ulertu ohi duten solaskideekin hizkuntza berean beti edo askotan mintzatu diren Ahobizien kopurua lau puntu igo zen (%52tik %56ra) azarotik martxora. Zailtasunak zituztenekin hiru (%10etik %13ra).

“Betetze maila oso altuarekin amaitu du ariketa sozial hau Ahobizien %89ak”

Euskaraz erraz mintza zitezkeen solaskideekin %100ean aritu ziren hizkuntza berean Ahobiziak, beti edo askotan. Zailtasuna zutenekiko euskararen erabilera %81etik %64ra murriztu da, nahiz bazuetan euskaraz egin dutenen kopurua %18tik %30era igo zen. Betetze maila oso altuarekin amaitu du ariketa sozial hau Ahobizien %89ak.



15 puntu igo zen euskara ulertzen duten guztiekin edo gehienekin euskaraz aritu ziren Belarriprestak.

Belarripresten ekarpen nabaria

Euskaraldiko galdetegiak erantzun zituzten Belarriprestak 20 izan ziren. %85ak ulermen ona izan eta hamarretik zazpi ongi mintzatzeko gai zirela adierazi zuten. Ekimenarekiko motibazio oso handia erakutsi dute Belarripresten erdiek, handia erakutsi dutenak batuta %100 izatera ailegatu dira.

Belarripresten ahalegina nabarmen-tzen duten datuak segidan; 15 puntu (%60tik %90era 11 egunetan, %75ean martxoan) igo zen euskara ulertzen duten guztiekin edo gehienekin euskaraz aritu ziren Belarriprestak. Belarripresten euskararen erabilerak 10 puntu egin zuen gora (%45etik %75era 11 egunetan eta

martxoan %55ean).

Belarripresten inguru hurbilean euskararen erabilera datuok bildu ditu Soziolinguistika Klusterrak: familian %65etik %75era igo da Euskaraldiari esker hitz egindako dena edo erdia baino gehiagotan euskara ahotan hartu duten Belarriprest kopurua, %50etik %55era lagunartean, lantokian %40tik %45era, ezezagunekin 15 puntu (%45etik %60ra). Ikaslekuan, Ahobizien kasuan ez bezala, Belarriprestek eremu honetan hitz egindako guztian edo erdia baino gehiagoan euskara ahotan hartu dutenen kopurua %20aren bueltan mantendu da.

Gaitasuna, erabilerarekin batera gorantz

Euskaraz hitz egiteko gai direnen Belarripresten artean, “oso altua da euskara erabiltzeko joera”. Euskaraldiari esker, 78etik 85era igo da puntuazioa.

Bikoizteraino, %25etik %50ra igo da euskara beti edo askotan ahotan hartu duten Belarriprestak euskara erraz ulertzen duten solaskideekin. Ulermen zailtasunak dituztenekin %45etik %50era.

Euskaraz erraz mintzatzeko direnekin hizkuntza berean komunikatu dira Belarriprestak; Euskaraldiari esker %85etik 90era igo da beti edo askotan hala egiten dutenen kopurua. Zailtasunez mintzatzeko direnekin %65etik %40ra. Belarripresten %85ak betetze maila oso altuarekin amaitu zuten Euskaraldia.

AHOBIZI-BELARRIPREST HARTUEMANA

Euskaraldiko bi rolen hartuemana ere aztertu du Soziolinguistika Klusterrak. Ahobizien %97a beti edo ia beti mintzatu da euskaraz Ahobiziekin, %85a Belarriprestekin. Eta alderantziz? Belarripresten %90a euskaraz beti edo ia beti Ahobiziekin; Belarripresten %75a beste Belarriprestekin.

BATAZ BESTEKOAREN AZPITIK

Usurbilen gune soziolinguistiko bereko udalerrietan 14 puntu igo da euskaraz beti edo gehienetan egiten duten herritar kopurua. Usurbilen, 5,74. Baina ez ahaztu, Usurbilen ehuneko oso altuetan gabiltza, ehunekook hobetzeko dugun tarte beste hainbat herrietan baino txikiagoa da.

USURBILEN





BIZIPEN ETA DESIOEKin, EUSKALTZALEON SAREA OSATZERA

Iazko eta 2020ko edizioaren arteko zubi-lana egiten lagunduko digu Euskaraldiaren lan taldeak azaroaren 30erako prestatu duen egitarauak.

Iragana eta etorkizuna lotuko ditu. Iazko Euskaraldiaren eta berrikuntze-kin datorren 2020ko edizioaren arteko zubi-lana egiten lagunduko digu, ekimena sustatzen ari den herritar taldeak azaroaren 30erako proposatu digun ariketak. Batetik, iaz milatik gora Ahobizi eta Belarriprest-ek 11 egunez euskaraz bizitzeko hartutako konpromisoaz oroitze-ra animatzen gaituzte. Bizipenak berritzera, Euskaraldia gutako bakoitzarentzat zer izan zen aitortzera. Eta hausnarketa horretatik abiatuta, erronka berriak marraztera gonbidatzen gaituzte; urtebete barru gure bizitzetara itzuliko den 2020ko Euskaraldian geure buruari jarri nahi diogun helburu edo desio hori adieraztera.

Iazko bizipenak eta etorkizunera begirako desioak NOAUA! honen bidez jasoko dituzuen txarteletan idatzi eta azaroaren 30ean plazan zintzilikatzeko aukera izango duzue. Idatziok euskaltzaleon sarea osatu nahi da. Euskaraldiko bizipen eta desioak kaleratu eta partekatze plaza izango dugu Usurbilgoa aste-bete barru.

“Usurbildarrak daukate” emanaldia

Azaroaren 30ean, eguerditik hasi eta Usurbilgo artisten taldeak iluntzeko 19:30etan Askatasuna plazan eskainiko duen “Usurbildarrak daukate” emanaldira arte egin ahalko dira ekarpenak plazan egongo den sare horretan. Aldaketarik ez bada, emanaldi horretan zehar desio eta bizipenotako batzuei ahotsa jarriko diete. Antzerkia, dantza, kantua, poesia... uz-

**Antzerkia,
dantza, poesia...
uztartuko ditu
azaroaren 30eko
emanaldiak**



Artixta taldeak Usurbildarrak daukate emanaldia eskainiko du azaroaren 30ean. Saio honetan iazko bizipenei ahotsa jarriko zaie.

tartuko ditu Usurbilgo sortzaileek usurbildarrentzat prestatutako emanaldiak. Gazte Eguna ospatuko da larunbat horretan, emanaldi hau bere egitarauan txertatu da Aztarrika gazte asanbladak.

Kantu-jira, kutxen bila

Azaroaren 30ean, 12:30etik aurrera, herri erdigunea girotuko dute Mikel Laboa plaza-tik abiatuta. Kantuan, “euskaltzaleon bizipen eta desioen kutxen bila” abiatuko dira.

ZER IZAN DA EUSKARALDIA ZURETZAT?

1-Aste honetako aldizkariarekin Euskaraldiaren eskuorri batean bi txartel jasoko dituzue. Txartel bakoitzak galdera bana izango du:

-Zer izan da Euskaraldia zuretzat?

-Zer lortu nahi duzu datorren edizioan?
2-Galderak txartel hauetan idatziz erantzun.

3-Azaroaren 22tik aurrera txartelok herriko hainbat udal zerbitzuetan (udaletxean, Potxoenean, liburutegian, Kiroldegian...) biltzeko kutxak jarriko dira. Ez da baztertzeko, tabernetan ere

jartzea.

4- Azaroaren 30ean (larunbata):

12:30 Kantu-jira Mikel Laboa plaza-tik, “euskaltzaleon bizipenen eta desioen kutxen bila”. Ondoren, euskaltzaleon sarea osatuko dugu frontoi inguruan. Herritarren bizipen eta desioak zintzilikatuko ditugu sarean. Zatoz zurea eskegitzera!

19:30 “Usurbildarrak daukate” emanaldia. Euskararen Egunaren harira, pertsona erreferentzial batek idatzitako mezua irakurriko da.

EUSKARAREN EGUNARI LOTUTAKO HAINBAT EKITALDI

Aginagan kontzertu bat eta antzezlan bat antolatu dute. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek aldiz, ikuskizun berria eskainiko dute Usurbilen.

‘Dantzara’, Pirritx, Porrotx eta Marimotots Oiardo kiroldegian

“Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!”, hortxe Pirritx, Porrotx eta Marimototsen gonbita abenduaren 1erako. NOAUA! K.E.-k antolatuta “Bizi dantzan” ikuskizun berria ekarriko digute Oiardo Kiroldegira 11:30etan. Sarrerak aurrez 7 eurotan salgai NOAUA!n, Bordatxon eta Lizardin. Edo egunean bertan, 10:30etatik aurrera Kiroldegian.

Euskal kantuen bertsio umoretsuak, Demode Quartet-ekin

Musika estilo ezberdinak euskal kantutegitik eratorritakoak direla sostengantzen duen teoria ardatz hartuta plazaratu zuen Demode Quartet taldeak “Epa!” ikuskizuna. Aurkezpen biran gaztetxoak ere zaletu bilakatu zirela ikusita, “Epa txiki!” estreinatu zuen iazko Euskaraldian, Mikel de la

Abenduaren 1ean igandea Oiardon: Pirritx, Porrotx eta Marimotots



Demode Quartet taldeak “Epa txiki!” ikuskizuna eskainiko du azaroaren 30ean Aginagan. 18:00etatik aurrera, Eliza Zaharrean.

Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Rosco laukoteak.

Euskal klasikoen bertsio umoretsu

eta koreografiatuak azaroaren 30ean 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrera doan.

“ZOAZ PAKE SANTUAN” ANTZEZLANA AGINAGAN

Ezustekoz beteriko umorezko antzezlan honetako protagonistak Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktore ezagunak, bikote harreman bateko kideak ditugu. Daraman bizimodu aspergarria eteteko, emakumeak bikotelaguna pozoitzea erabakitzen du. Egindakoa gizonari aitortuko dio eta berarekin azken orduak bizitzeko prest agertuko da, biak, etxean gil-

tzaperatuta. Plana ordea ez da aurreikusi bezala aterako. Begoña Bilbaok zuzenduriko Txalo produkzioak-en antzezlan hau abenduaren 1ean ikusi ahalko duzue 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.

Sarrerak, Arrate tabernan

Sarrerak aurrez Arrate tabernan 5 eurotan salgai edota egunean bertan.



Abenduaren 1ean, Eliza Zaharrean ikusgai.

USURBIL-ZUBEROA HARTUEMANARI GORAZARRE

Bi hamarkadatik gora dabilta hartuemanetan, egunerokoan elkarrengandik senti dezakegun urruntasunarekin hausten. Zuberoa, xiberotarrak ezagunak zaizkigu azken 20 urteotan, usurbildar koadrila baten eta haien arteko hartuemanari esker. Horren adierazgarri, ekainaren 16an Usurbilen izan genuen xiberotarren bisita.

Maskarada eguna ospatu genuen igande hartan; udaletxeko harrera ekitaldi, dantzaz eta kantuz blaitutako kalejira eta eskaini ziguten ikus-kizun ederrarekin. Ekainaren 16ak emandakoa iruditan bildu zuten argazkitan Ibai Arrietak, bideoz Joakin Pagolak. Zenbait usurbildar eta xiberotarren lekukotzak ere bildu zituzten.

***“Ekainaren
16ko maskarada
iruditan jaso zen.
Sutegin ikus ahal
izango da”***



Bi herrien hartuemanaren erakusle izan zen jaialdi hartako edukiarekin proiektzioa antolatu dute azaroaren 29an 19:30ean Sutegin.

Azaroaren 29an ostirala, ekitaldia Sutegin

Bizirik segitzen duen bi herrien hartuemanaren erakusle izan zen jaialdi hartako

eduki horrekin guztiarekin proiektzioa antolatu dute azaroaren 29an 19:30ean Sutegin. Antolatzailcek aurreratu digutenez, Ixabel Agirresarobek aurkeztuko du

saioa. Mikel Alkortak trikiti pieza pare bat ere joko ditu, eta Orbeldikoak ere dantzara igoko dira kultur etxeko auditorioko oholtzara.

ZUBEROAKO PRODUKTUDUN OTARRAK

Euskararen biziraupena eta ikastolena bermatzeko, Zuberoan bertan ekoiztutako produktuen otar goxoak eskatzeko aukera dugu Usurbilen, Nafartarrak taldekoen eskutik.

NOAUA! bidez edo emailaz eskatitzakezue xiberokootarrakusurbil@gmail.com helbidean, abenduaren 8ra arte. Eta jaso, abenduaren 15eko San Tomas Azokan, edo NOAUA!ko egoitzan bestela abenduaren 16tik 20ra. Jasotzean egin beharko dituzue ordainketak.

Irati

Produktuak: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki lukainak (400 g), axoa xahalki xehatua saltsan (640 g). Prezioa: 52 euro.

Ahüzki

Produktuak: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki pate (200 g), euskal xerriki odolkia (200 g). Prezioa: 40 euro.



San Tomas Azokan jaso beharko dira saskiak.

MINTZALAGUN, 10. URTEMUGARA BEGIRA

Hamaika eguneko ariketa kolektibo egin genuen iazko Euskaraldian. 2020ra begira konpromisoa berritu eta indartzeko garaia dugun honetan, ez ahaztu euskara urtean zehar, egunerokoan, noiznahi ahotan hartzeko aukera gehiago badirela; Mintzalagun egitasmoari esker esaterako.

Astean ordubetez, euskara ikasi edo hobetzen ari diren bidelariak eta euskara menderatzen duten bidelagunak batzen ditu ekimenak, taldeak erabakitako plan ezberdinen bueltan. Egiten dena egiten dela, helburua euskara ahotan hartzea da. Parte hartzeko gutxieneko euskara ezagutza izatea baino ez da eskatzen. Harreman sare berria sortzea ahalbidetzen du, ekintza irekietan parte hartzeko aukera eskaintzen du eta opari edota deskontuen gisako abantaila gehiagoz gozatzeko bidea ematen du baita.

Noiznahi izena emateko aukera
Aurtengo kanpainaren leloak dioen mo-

***“Astean
ordubetez
euskara ikasi
edo hobetzeko
aukera dago”***



Mintzalagunek harreman sare berria sortzea ahalbidetzen du, ekintza irekietan parte hartzeko aukera eskainiz. Argazkia: Lurdes Hueta.

duan, “11 aukera daude euskaraz praktikatu eta bizitzeko”. Usurbilen, Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA!-k eta Udalak sustatzen dute ekimena. Urtean zehar noiznahi eman daiteke Mintzalaguneko izena aipatu hiru eragileotako batengana jota. 2020an 10 urte beteko ditu

eta urtemuga ospatzekoak dira. Informazio gehiagorako:

- Euskaltegian, Potxoenean edo NOAUA!n
- 607 609 379 / 943 360 321
- mintzalagun.blogspot.com
- usurbil@ae.k.eus
- Facebook: Mintzalagunak Gara

GABONETAN EUSKARA OPARITU

Guztion etxeetara bidean datozen Mari Domingi eta Olentzerori gurariak bideratzeko oparien zerrenda prestatzen hasteko garaia da. Ez ahaztu bereziki haur eta gaztetxoentzako eskariren bat egin nahi duenak, sorpresen saski horretan euskarari tarte egitea. Urte amaiera honetan ere, euskara oparitu diezaiekezue 0-16 urte arteko haur eta gazteei, eskaintza zabala baitugu eskura. Hautaketa lana egiten lagunduko digu, Hego Euskal Herriko 115 udal eta mankomunitateetako euskara zerbi-

tzuek (tartean Usurbilgoak) elkarlanean plazaratu duten Euskarazko Produktuen Katalogoak. Udalak ikastetxeetan banatuko du asteotan.

Sarean ere eskuragarri

Paperezko edizioaz gain, 10.000 produktubaino gehiagoren erreferentziak aurkituzakezue katalogoa.eus atarian. Haietako bat hautatu eta eskuratu nahi izanez gero, web orrialdetik produktu horren denda birtualera sartzeko bidea ere bada, “non eskuratu” botoiaren bidez.



AGENDA BETE EKITALDI

Azaroak 29, ostirala

■ 19:30 Ekainean ospatu zen Maskarada Eguneako irudien proiektzioa Sutegi-ko auditorioan. “Bideoa, Urdiñarbeko Maxkarada ardatz hartuta, Usurbil eta Urdiñarberen arteko harremanak bizirik jarraitzen duela erakusten duen euskarria izango da. Herritar ezberdinek ere bertan parte hartuko dute”. Sarrera: doan. Antolatzaileak: Xiberoko lagunak, Euskaraldiko lan taldea.

Azaroak 30, larunbata

■ 12:00etatik aurrera Usurbilgo frontoian egun osoz: “Sare batean herritarrek pin-tza eta paper zatiez baliatuta, Euskaraldiari lotutako beren desio eta bizipenak zintzilikatuko dituzte”.

Antolatzailea: Euskaraldia.

■ 12:30 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta. Kantu-liburuxka hartu eta abes-tera animatzen du Kantu Taldeak.

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

■ 18:00 Demode Quartet taldearen “Epa txiki” haurrentzako ikuskizuna Aginagako Eliza Zaharrean. “Epa Txiki! 50 minutuko ikuskizun musikala da, koreografia dibertigarritz, umorez eta betiko klasiko euskaldunen bertsioz jositakoa, eta haurrei zuzentzen zaie, baina zenbait lagun-keinu egiten dizkie handienel”.

Antolatzaileak: Antxomolantxa Elkartea, Euskaraldia.

■ 19:30 Herriko Artixten “Usurbildarrak daukate” emanaldia Askatasuna plazan. “Herriko artixtek “Usurbil” gaia ardatz hartuta, emanaldi bikaina eskainiko dute: antzerkia, dantza, musika, olerkiak...”.

Antolatzaileak: Herriko artixtak, Euskaraldia.

Abenduak 1, igandea

■ 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Bizi dantzan” saioa Oiardo Kiroldagian. Sarrerak: aurrez 7 eurotan Bordatxon, Lizardin eta NOAUA!n. 8 eurotan egunean bertan 10:30etik aurrera Oiardo Kirold-



Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, ekitaldiak egingo dituzte Aginaga eta Zubietako eskoletan eta Udarregi ikastolan. Ikus egitaraua.

gian salgai.

Antolatzaileak: Euskaraldia, NOAUA!

■ 18:00 “Zoaz bake santuan” antzezla-na Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak: 5 eurotan aldeztatik aurretik Arrate tabernan. Egunean bertan ere salgai izango dira.

Antolatzaileak: Euskaraldia, Aginagako San Praixku Guraso Elkartea.

Abenduak 3, asteartea

■ Zubietako eskolan.

■ Aginagako eskolan: “ikasleek, gurasoek eta irakasleek, beraientzat euskarazko hitz politena dena aukeratu eta denon artean hormairudia sortuko dugu. Euskarako abestiekin jolasak egingo ditugu”.

Udarregi Ikastola:

■ 9:30-11:00 Eguraldiak laguntzen badu, LH-koen kalejira buruhandiekin.

■ 12:10-12:30 LH-koen kantu saioa; eguraldiaren arabera, Mikel Laboa plazan edo frontoian.

■ Egunean zehar, HH, LH eta DBH-ko ikasleek hamaika ekintza ikastola barruan. Oharra: behin behineko egitaraua, aldatetarako egon daitezke.

EUSKARALDIKO BATZORDEETAN JENDEA BEHAR DA

Euskaraldiaren bigarren edizioa prestatzeko lanak martxan dira Usurbilen. Euskaraldiko taldeak bi hilean behin biltzen segiko dute. Herritarron laguntzaren beharra izango duten batzorde irekiak dira. Informazio gehiago:

■ usurbil.euskaraldia.eus

■ usurbil@euskaraldia.eus

■ 688 807 336

2020ko iraila

Bigarren Euskaraldirako izen ematearen irekiera.

2020ko azaroak 20-abenduak 4

Euskaraldiaren bigarren edizioa: Aho-bizi eta Belarripresten norbanako ari-
ketaz gain, Ariguneak sortuz entitateetan eragingo da 15 egunez.

San Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sagardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten lehiaketa berritua izango dugu.



Abenduaren **15ean**
igande goizez

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

ABENDUAREN 2tik 12ra

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- **1. saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€ + kopa**
- **3. saria: 50€**



noaua

aire
garbiak

bira

Iturri zaharretik edaten dugu,
ur berria edaten, hitz bizia aditzen,
beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.

EUSKARALDIA
SURBILEN

11 EGUN EUSKARAZ



Usurbilgo Udala